BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4927

232/2012 DEKRETUA, urriaren 30ekoa, zeinaren bidez urgentziako deklaratzen baita Valle de Trápaga-Trapagarango udaletxeak, nahitaez desjabetzeko, honako eskubide eta ondasunak okupatzea: «Ugarte auzoan –Fuentecilla bidean– desbideratze-proiektua» burutzeko beharrezko ondasun eta eskubideak.

Ugarte auzoan –Fuentecilla bidean– desbideratze-proiektua burutzeko obren espedientea prestatu eta formalki onartuta, Valle de Trápaga-Trapagarango udaletxeak honako hau adierazi zuen: proiektua burutzeko, beharrezkoa zela lur-sail guztiak baliatu ahal izatea.

2012ko ekainaren 30ean, de Valle de Trápaga-Trapagarango udalak, batetik, desjabetze-espedientea hastea erabaki zuen, eta, bestetik, eraginpeko ondasunen eta eskubideei dagokienez jendaurreko informaziorako izapidea egitea, hamabost eguneko epean, BAOko 2012-08-09ko BAOn eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratutako iragarkien bidez. Halaber, 2012ko ekainaren 30ean, Udalak Eusko Jaurlaritzari honako hau eskatzea erabaki zuen: proiektuak eragiten dien ondasun eta eskubideak lehenbailehen okupatu beharrekoak direla deklaratzea, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

Lehenbailehen okupatu beharreko ondasun eta eskubideak banan-banan zehaztuta agertzen dira espedientean jasotako zerrendan, zeintzuk diren jakiteko beharrezkoak diren datuekin. Zerrenda hori jendaurrean zela, eta administrazio-espedientean jasotzen denez, alegazio bat aurkeztu ziren.

Zerbitzu teknikoek adierazi dute ez dagoela espedientea izapidetzeko inolako oztoporik.

Ondasun eta eskubide horiek okupatzea luzaezinezkotzat jotzen da honako arrazoi hauengatik:

Portugaleterako ur-hordiduraren eroanbidearen azpitik desbideratuaz bidea, larrialdietarako zerbitzuek Ugarte auzuneko Fuentecilla zonarako sarbide izatea baimentzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 26.1.f) artikuluan xedatzen denez, Eusko Jaurlaritzari dagokio adieraztea lehenbailehen okupatu beharrekoak direla nahitaez desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak baldin eta nahitaezko desjabetzeak honako hauek hartzen baditu: egikaritze-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolaketari dagozkion sistema orokorrak edo antolaketa horren elementuren bat, eta hiri-lurzoruan egin beharreko banakako jardunak. Goian aipatutako lege horren 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, orduko Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumeneko sailburuari zegokion horretarako proposamena Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztea.

Beraz, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuak halaxe proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2012ko urriaren 30ean egindako bileran gaia aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26.ean xedatutakoari jarraituz, nahitaez desjabetzeko,

«Ugarte auzoan –Fuentecilla bidean– desbideratze-proiektua» burutzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak Valle de Trápaga-Trapagarango Udalak urgentziaz okupatu beharrekoak direla deklaratzea. Berariaz hasarazitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztu eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek administrazio-bidea amaitzen du eta bere aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Jaurlaritzaren Kontseiluari hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan bi hilabeteko epean. Epeak dekretu honen argitaratze-egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira.

Vitoria-Gasteizen, 2012ko urriaren 30ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.